



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, MUSIKA IKASKETA PROFESIOALEN CURRICULUMA ETA IKASKETA HORIETAN SARTZEKO PROBAK EZARTZEN DITUEN ABENDUAREN 11KO 229/2007 DEKRETUA ALDATZEKO PROIEKTUARI AURRETIAZKO KONTSULTA EGITEKO DENA, TRIKITIXA ESPEZIALITATEA SARTZEKO ETA ESPEZIALITATE HORRETAKO CURRICULUMAREN OINARRIZKO ALDERDIAK GARATZEKO.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak ezartzen duenez, irakaskuntza profesional artistikoen helburua ikasleei kalitatezko prestakuntza artistikoa ematea da; baita ere musika, dantza, arte dramatiko, arte plastiko eta diseinuko etorkizuneko profesionalen kualifikazioa bermatzea ere. Irakaskuntza artistikoak dira, besteak beste, musika ikasketa profesionalak. Legeak ezartzen duenez, ikasketa horiek sei ikasturteko iraupeneko gradu profesionalean antolatu behar dira.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako musika ikasketa profesionalen curriculumaren oinarritzko alderdiak finkatzen dituen abenduaren 22ko 1577/2006 Errege Dekretuaren lehen xedapen gehigarriak aurreikusten duenez, arau horren 4. artikuluan ezartzen diren instrumentu edo ahots-espezialitateen zerrenda zabaldu ahal izango da beste espezialitate batzuekin, baldin eta espezialitate horiek, beren sustrai tradizionalagatik edo etnografiaren aldetik duten interes mailagatik eta erreperatorioaren konplexutasunagatik, edo Europako musika-kulturan duten balio historikoagatik eta dagokion lurralde-eremuan duten ezarpen-mailagatik, bai eta gizarte plural baten eskaera berriengatik ere, espezialitatearen tratamendua behar badute.

Era berean, xedapen horren 2. paragrafoan zehazten da espezialitate berriak sortzeko erabakia Gobernuak hartuko duela, autonomia-erkidegoek eskatuta edo bere ekimenez, autonomia-erkidegoei entzun ondoren, eta espezialitate berri posibleen curriculuma ezartzea maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko dela.

Kasu honetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioak hala eskatuta, Gobernuak otsailaren 18ko 104/2025 Errege Dekretua argitaratu du, musika ikasketa profesionalean trikitixa espezialitatea sortu eta espezialitate horretako curriculumaren oinarritzko alderdiak ezartzen dituen.

Errege Dekretu horrek handitu egiten ditu abenduaren 22ko 1577/2006 Errege Dekretuaren 4. artikuluan aurreikusitako musika ikasketa profesionalen musika-espezialitateak. Errege Dekretu horren bidez, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako musika ikasketa profesionalen curriculumaren oinarritzko alderdiak finkatzen dira, trikitixa espezialitatearen sorrerarekin. Era berean, espezialitate berri horren curriculumaren oinarritzko alderdiak ezartzen ditu, autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioek modu zabalagoan garatu ahal izango dituztenak.

Beraz, musika ikasketa profesionalean trikitixa espezialitatea sortu eta espezialitate horretako curriculumaren oinarritzko alderdiak ezartzen dituen otsailaren 18ko 104/2025 Errege Dekretuak ezarritakoa Euskal Autonomia Erkidegoan garatu behar da. Horretarako, espezialitate hori sartuko da musika ikasketa profesionalen curriculuma eta ikasketa horietarako sarbidea ezartzen dituen abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuan.





Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, xedapen arauemaile baten proiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bidez, eta etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsona eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasoko da bertan.

Lege horrek ezartzen duenez, kontsultak honako alderdi hauek izan behar ditu hizpide:

- Araua onartzeko beharra eta aukera.
- Helburuak.
- Konpondu nahi diren arazoak.
- Bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Ekimena onartzeko beharrari eta egokitasunari dagokionez, adierazi behar da otsailaren 18ko 104/2025 Errege Dekretuak, musika ikasketa profesionaletan trikitixa espezialitatea sortu eta espezialitate horretako curriculumaren oinarritzko alderdiak ezartzen dituenak ezarritakoa Euskal Autonomia Erkidegorako garatu beharra dagoela.

Arau-proposamenaren xedea da Trikitixa espezialitatea ezartzeko premiari erantzutea, irakaskuntza arautuaren esparruan instrumentu hori barne hartuko duen arau-aitorpena emanaz; izan ere, agerian geratzen baita instrumentu hori Euskal Herriko musika autoktonoaren adierazgarrienen artean dagoela.

Konpondu nahi diren arazoei dagokienez, trikitixa euskal musikaren nortasun-elementutzat hartu nahi da, haren proiektio sozial eta profesionala ahalbidetzeko, bai estetika tradizionalaren ingurunean, bai soinu-lengoaia berrietan. XIX. mendearen erdialdean Euskal Autonomia Erkidegora iritsi zenetik, trikitixak («soinu txikia» edo euskal akordeoi diatonikoa) errotze handia lortu du jaietan, erromerietan, omenaldietan eta kalejiretan, baltsak, mazurkak, tangoak edo boleroak bezalako musika herrikoia gehituz. Gaur egun, musika talde tradizionaletan eta gaur egungo musika estiloetan sartuta dagoenez, eta instrumentuko bakarlariak eta trikitixa taldeak daudenez, Euskal Herriko musika eskoletan asko eskatzen den instrumentua da, bertan irakasteko metodologia ezberdinak garatu baitira. Beraz, Trikitixa espezialitatea sortzeak irakaskuntza eta ikerketa-eremuko espazio bat sortzeari ekin nahi dio, instrumentu hori eta haren errepertorioak kontserbatu eta zabaltzeko eta horretarako bide estetiko berriak finkatzeko.

Dekretu-proiektua izapidetzeko egon daitezkeen irtenbide erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoan musika ikasketa profesionalen curriculum eta ikasketa horietarako sarbidea abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuan arautzen direnez, eta Dekretu horretan sartuko denez trikitixa espezialitatea, ez dago beste aukera arautzailerik.

Goian adierazitako guztia kontuan hartuta, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontsulta hau:

- Erakunde publiko eta pertsona fisiko guztiei irekitzen zaie, bai eta etorkizuneko arau-erregulazio horrek uki ditzakeen erakunde, entitate edo elkartei ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren web-atarian argitaratuko da.
- Hamabost egun balioduneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta haien erakundeek egoki iritzitako iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten.



Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan aurreikusitako lege-eskemari jarraituz egiten dena. Gainera, arau-proiektua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12. eta 13. artikuluek arautzen duten hasiera-fasearen barruan.

Horregatik guztiagatik, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuak emandako eskumenei jarraikiz

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. – Jendaurrean jartzea musika ikasketa profesionalen curriculuma eta ikasketa horietan sartzeko probak ezartzen dituen abenduaren 11ko 229/2007 Dekretua aldatzeko proiektua, trikitixa espezialitatea sartzeko eta espezialitate horretako curriculumaren oinarrizko alderdiak garatzeko.

Bigarrena. – Arauak eragiten dien herritarrek eta erakundeek, nahi izanez gero hamabost egun balioduneko epea izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, agindu honetan proposatutako alderdiei buruzko iritzia emateko.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean

Maria Begoña Pedrosa Lobato

HEZKUNTZAKO SAILBURUA